

PROBA ESPEZIFIKOA

2010eko PROBA

**ARTEAREN
HISTORIA**

PROBA

ERANTZUNAK





Probaren iraupena: ordubete

Probak bi atal ditu:

1. atala: Bi irudi eskainiko dira; bat hautatu behar da, eta iruzkina egin. Atal honek 5 puntuko balioa izango du.


2. atala: Bi gai proposatuko dira; bat hautatu behar da, eta garatu. Atal honek 5 puntuko balioa izango du.

1. atala:

AZTERTU ETA IRUZKINDU BI IRUDI HAUETAKO BAT: (5 puntu)

- Sailkatu ezazu obra, aipatuz egilea, estiloa eta gutxi gorabeherako kronologia.
- Egin ezazu obraren azterketa formal eta ikonografikoa.
- Azter ezazu, labur, obraren garaiko testuinguru historiko-artistikoa.

A)





Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

UNIBERTSITATERA SARTZEKO
HAUTAPROBAK 25 URTETIK
GORAKOAK

2010eko MAIATZA

ARTEAREN HISTORIA

PRUEBAS DE ACCESO A LA
UNIVERSIDAD PARA MAYORES
DE 25 AÑOS

MAYO 2010

HISTORIA DEL ARTE

B)



2. atala

HAUTATU ETA GARATU PROPOSATZEN DIREN BI GAI HAUETAKO BAT:
(5 puntu)

A.- “ARKITEKTURA GOTIKOA”.

- Arkitektura gotikoaren ezaugarri orokorrak.
- Espainiako eta Euskal Herriko eraikin gotiko nagusiak.

B.- “PINTURA IMPRESIONISTA”

- Impresionismoaren aurrekari historikoak.
- Pintura impresionistaren ezaugarri nagusiak.



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

UNIBERTSITATERA SARTZEKO
HAUTAPROBAK 25 URTETIK
GORAKOAK

2010eko MAIATZA

ARTEAREN HISTORIA

PRUEBAS DE ACCESO A LA
UNIVERSIDAD PARA MAYORES
DE 25 AÑOS

MAYO 2010

HISTORIA DEL ARTE

**EBAZPENA: ARTEAREN HISTORIA
(2010eko maiatza)**

Probak bi atal ditu:

1. atala: Bi irudi eskainiko dira; bat hautatu behar da, eta iruzkina egin. Atal honek 5 puntuko balioa izango du.


2. atala: Bi gai proposatuko dira; bat hautatu behar da, eta garatu. Atal honek 5 puntuko balioa izango du.

1. atala:

AZTERTU ETA IRUZKINDU BI IRUDI HAUETAKO BAT: (5 puntu)

- Sailkatu ezazu obra, aipatuz egilea, estiloa eta gutxi gorabeherako kronologia.
- Egin ezazu obraren azterketa formal eta ikonografikoa.
- Azter ezazu, labur, obraren garaiko testuinguru historiko-artistikoa.

A)



Erantzuna

- Egilea, estiloa eta gutxi gorabeherako kronologia

Augusto Prima Porta-koaren erretratuaren argazkia da; K.o. 20. urtearen inguruan egindako marmolezko eskultura bat da, arte klasiko erromatarrekoa. Egilea ezezaguna da. 1863an aurkitu zuten *Liviaren villan* (Livia Augustoren emaztea zen), garai hartan *Prima Porta* izena zuen Erromako auzoan. Gaur egun Vatikanoren Museoetan dago obra, Erroman.

- Lanaren analisi formal eta ikonografikoa

Eskultura bakartua da; marmolez egin dago, eta pintura-hondarren batzuk ditu (horrek pentsarazten du jatorrian eskultura polikromatua izango zela). Ustez, galdua dagoen brontzezko —edo urrezko edo zilarrezko— original baten kopia da. Oktavio Augustoren gorputz osoko estatua ofiziala da; militar-jantziarekin ageri da, koraza eta guzti, eta zutik dago. Polikletoren Doriforoan inspiratua dirudi: oso antzeko ezaugarriak dituzte, eta eskuin hankaren gainean daude biak, ezkerra pixka bat altxatua dutela. Nabarmena da Greziako garai klasikoaren eragina, *contrapposto* jarrera horretan. Dena den, Doriforoak ez bezala, eskuin eskua jasota dauka Augusto Prima Portakoak, bere gudarostea hitzez adoretzen ariko balitz bezala. Beste besoarekin gerrian toles handiekin kiribildua daukan kapari (togari) eusten dio. Harmonia eta neurritasuna iradoki nahi dira horrekin.



Aurretiko perspektiba du, neurri batean; izan ere, begiratzeko ikuspuntu bakarra dauka. Jarrera patxadatsua eta lasaia du.

Armaduraren erdian hainbat erliebe ageri dira, oso fin landuak. Erliebe horiek irudikatzen dituzte Augustok bizi izandako gertaera militarrek, legioen garaipenak eta haren gobernuak Erromaren handitasunari nahiz *Pax romanari* egindako ekarpenak.

Deigarria da aurpegia, naturaltasun handia baitu. Izan ere, enperadorearen benetako erretratua da, benetako hazpegiak ondo zehaztuak dituena, baina, era berean, hein batean idealizatuak daude, politikari bati dagokion lasaitasuna, distantzia eta segurtasuna islatzearen. Idealizazio hori egileak greziar eskultura klasikotik hartutako beste ezaugarrietako bat da.

Augustoren idealizazioari laguntzen dioten beste elementu batzuk ere badira. Batetik, behealdean, badago Cupido txiki bat izurde baten gainean; egileak Augusto eta beraren familia jainkoekin lotzeko erabilitako baliabide bat besterik ez da, Eneas eta Venusen ondorengo gisa agerrarazteko. Bestetik, oinutsik agertzen da, Greziako jainko eta heroien ezaugarria baita.

Laburbilduz, eskultura honen egilearen asmoa ez da Erromako enperadore eta buruzagi militar bat irudikatzea soilik; pertsonaia hilezkor bat ere irudikatu nahi du, hau da, aldi berean izaki jainkotiarra eta gizakia dena.

- Testuinguru historiko-artistikoa

1.- Oktavio Augusto

Oktavio Augusto (Erroma, K.a. 63. urtea – Nola, K.o. 14. urtea) lehen enperadore erromatarra izan zen. Zesarren hilketaren ondoren —oinordeko izendatua zuen hark—, Bigarren Triunbiratuko kide izan zen, Marko Antoniorekin eta Lepidorekin batera. Lepido baztertu eta Marko Antonio *Actiumgo* gudaldian (K.a. 31. urtea) garaitu ondoren, enperadoretzarako hautagai bakar bilakatu zen Oktavio.

K.a. 27. urtean, *augusto* titulua eman zion Senatuak, bai eta botere ugari ere, lehendik zuen kontsul-izaerari gehitu zitzaizkionak. Horrela eratu zen printzegerregimena: printzearena —lehenengo senatariarena— zen boterea, nahiz eta formalki Errepublikako erakundeei eutsi zitzaien. Gainera, bere gain hartu zituen *imperiuma* (edo armadaren gaineko boterea) eta erlijio erromatarraren Pontifize Goren titulua.

Augustoren garaian (K.a. 27 – K.o. 14), Erroma ikusgarriro hedatu zen. Mugen barruko zein kanpoko bakea legioekin bermatu zen. Asturiarren, kantabriarren eta germaniarren kontra borrokatu zen. Danubioren arroa konkistatu zuen, eta loraldi ekonomiko zein kulturala ekarri zion Inperioari (*Pax Romana*), askatasun-gabezia nabarmenarekin bazen ere.

2.- Eskultura erromatarra



Eskultura erromatarra oso aberatsa da, eta askotarikoa. Etruskoen eta, batez ere, greziarren eragina du, betiere bere beharretara egokitua.

Eskultura greziarrak kopiatzea ohiko bilakatu zen, erosahalmen handiko jendearen eskaria asetzeko. Elitearentzako joera *helenizatzaile edo aristokrata* horren aurrean, *herri-arte*a ere garatu zen, zeinean kezka narratiboa eta sinbolikoa nagusi baitira.

Erromatarrek, nagusiki, marmola eta brontzea erabili zituzten.

Eskultura erromatarren gai gustukoena gizakia da, eta estilo errealista nabarmenekoa da, oro har; halaber, narratibarekin eta historiarekin interes handia du. Genero ohikoenak erretratua eta erliebe historikoa dira.

3.- Erretratua

Erretratua izan zen eskultura erromatarretan gehien landutako gaia. Ezaugarri nagusia errealismorako joera da. Ez dira erretratu idealizatu eta enblematikoak, garai helenistikoan bezala; horren ordez, pertsonaiaren hazpegia ahalik eta zehatzen irudikatzen saiatu ziren. Horren ondorioz, estatua erromatarretan biluzi gutxi agertzen da, erretratutakoak jantzita ageri dira eta.

Bestalde, jendearen posizio politikoa eta soziala aditzera ematen dira erretratuaren bidez. Halaber, garrantzitsua zen, familia erromatarrentzat, arbasoen erretratuak edukitzea. Horretarako, askotan, hildakoaren argizarizko aurpegi-moldeetan oinarrituta egiten ziren erretratuak, eta jainkoak balira bezala (*laresak*) ohoratzen zituzten.

Gehien irudikatutakoak enperadoreak ziren, zeren haien irudiak inperioko bazter guztietara iristen baitziren mendekoen fideltasuna sustatzearren.

Erretratu erromatarrek errepublikaren garaitik inperioaren amaiera bitartean eboluzionatu egin zuen.

Lehen aldian, errepublikaren garaian, busto labur eta triangeluarra nagusitu zen, eta nabarmen ageri da gizabanako zehatz bat, beraren kargu politikoa eta maila soziala irudikatzeko borondate errealista. Adibideetako batzuk Ponpeio Handiaren eta Silaren erretratuak dira.

Inperioaren hasieran, eragin latindarreko errealismoko etapa nabari da; bustoaren tamaina handituz joan zen pixkanaka, eta sorbalda eta bularralderaino iritsi zen. Gainera, zenbaitetan, erretratatuaren itxura fisikoari batere arretarik ez jartzeraino iritsi ziren, Karakalarenean esaterako.

Aldi berean, korronte idealizatzaileak sortu ziren, non enperadoreak gazte eta heldu irudikatzen baitzituzten, nolabaiteko lasaitasuna eta bere buruarenganako segurtasuna erakutsiz; eta Inperioko herritarrak ere irudikatu zituzten. Adibideetako batzuk Augusto Prima Portakoaren, Vespasianoren eta Titoren erretratuak dira.

Hadrianoren agintepean, berrikuntzak agertu ziren erretratuetan, eta xehetasunekiko interesa areagotu egin zen. Bustoak ukondoraino luzatu zen. Garai



Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea

UNIBERTSITATERA SARTZEKO
HAUTAPROBAK 25 URTETIK
GORAKOAK

2010eko MAIATZA

PRUEBAS DE ACCESO A LA
UNIVERSIDAD PARA MAYORES
DE 25 AÑOS

MAYO 2010

ARTEAREN HISTORIA

HISTORIA DEL ARTE

hartakok dira Antinooren eskultura eta Marko Aurelioren zaldizko estatua, biak II. mendekoak.

III. mendean, hirugarren etapa hasi zen, sinplifikazioarena: irudikatutako hazpegiak nabarmendu egin ziren, eta modelaketa sinpletu. Pertsonaiaren hieratikotasuna areagotu egin zen, eta alde batera utzi zituzten elementu naturalista guztiak. Konstantinoren erretratua da horren adibide egokia.

B)



Erantzuna



- Egilea, estiloa eta gutxi gorabeherako kronologia

Irudia *Udaberria* da, Sandro Botticelli-rena; tenple-pintura da, neurri handiko oholean margotua (2,03 x 3,14 m) 1480. urtearen inguruan. Italiako Quattrocentoko Errenazimentuko pinturan kokatzen da. Florentziako (Italia) Uffizi galerian dago.

- Obraren analisi formal eta ikonografikoa

Konposizioa eta gaia. Ikuspuntu formaletik, Botticellik *formatu monumentalaren* alde egin zuen, tamaina naturaleko irudiak eginez, baina xehetasunik txikienari ere arreta handia jarritz. Laranjondo ugariz inguratutako lorategi batean gertatzen da guztia, ia argirik sartzen ez dela, eta lurra belar ilunez estalia dago, landarekimu eta lore ugarirekin. Konposizioaren erdian, laranjondoen adarrez inguratuta, Venus ageri da, maitasunaren jainkoa, urrez brodatutako tunika zuri bat jantzita, lepoko perladun bat zintzilik eta apaindura ugariko kapa gorri batekin. Venus bigarren planoan dago, eta Hiru Graziak erakusten ditu eskuin eskuaz; haren seme Cupido, bestalde, konposizioaren goialdean dago, eta uztai tenkatuaz hiruretako bat destatzen ari da. Hiru Graziak (Kastitatea, Edertasuna, Maitasuna) tunika erdi gardenak jantzita ageri dira; antzinatean liberaltasunaren sinbolo ziren. Eskuak gurutzatuta dauzkate, eta zirkuluan ari dira dantza goxoan; haien aldamenean, ezkerrean, Merkurio dago (hegodun oinetakoei esker ezagutzen da) Venusen lorategia iluntzen duten hodeiak uxatzen.

Konposizioaren eskuinaldean, lehen planoan, lore-korua duen emakume polit bat dator, eta eskuineko eskuarekin tunika loratuaren tolesetan dakartzan arrosak banatzen ari da lorategian. Haren aurpegi polita begira daukagu irribarretsu. Haren aldamenean, hazpegi bereko eta ile horiko beste emakume gazte bat ageri da, ahotik loreak ateratzen zaizkiola, tunika garden batekin jantzita, gizonezko gazte hegodun batengandik ihes egin nahian. Gizonezkoa tonu urdinetan margotua dago, eta emakumeari putz egiten ari zaio, kopeta zimurtuta. Eskuineko hiru irudi horiek Kloris ninfaren bahiketari egiten diote erreferentzia. Ninfa lur antzuaren alegoria da, eta Zefiro haize onaren jainkoarengandik ihes egin nahi du. Zefirok haize leuna bidaliz, Flora jainkosa bihurtzen du ninfa.

Esanahia. Hau izango da, hain zuzen, obraren esanahiaren interpretazioetatik sinesgarriena: Kloris ninfa Flora (udaberriaren sortzailea) bilakatzeko metamorfosia, Cupidoitsuak elikatzen duen Zefiroren maitasunak eraginda. Irudi batzuen bilakatze horrek irudikatzen du maitasun sentsualaren kontenplazio intelektualerako sublimazioa, Venusen irudiak gogora ekartzen duena.

Laburbilduz, literatura klasikoko gertakarietan eta elementu jainkotiarra eta gizatiarra lotzen dituen filosofia neoplatonikoan oinarritzen da historia.



Alderdi teknikoak. Erabilitako teknika ohol gaineko tenple-pintura da: arrautza edo kola moduko aglutinatzaile naturalekin loditutako uretan nahasten dira koloreak. Tradizionalki, gorringoa urarekin nahasten da. Nabarmentzekoak dira, batetik, *lerroen koloreekiko nagusitasuna* eta, bestetik, pertsonaiak eta hondoko lore-paisaia irudikatzeko Botticellik erabilitako marrazkien zehaztasuna.

Argia, kolorea eta mugimendua. Argi-contraste nabarmena dago pertsonaia argiztatuen eta hondoko paisaia ilunaren artean. Lurreko loreek ere nahikoa kontraste egiten dute soropilaren kolore ilunarekin. Hondoko paisaiak erretaula gotikoak gogorarazten ditu. Dena den, eszena nagusiko pertsonaien mugimendu erritmikoak eta hondoko zuhaitz nahiz belarren arteko kontrasteak urrundu egiten dute pintura hau pintura gotikoetatik.

Formalki, obra edertasun idealaren irudikapenaren adibide ona da. Horri laguntzen diote figuren liraintasunak, airean flotatzen daudela baitirudi, gorputzen nahiz tuniken dantza-mugimenduak eta hondoko paisaia idilikoak.

- Testuinguru historiko-artistikoa

1.- Sandro Botticelli (1445-1510). Italiako XV. mendeko bigarren zatiko pintura errenazentistaren maisu handietako bat izan zen. Quattrocentoaren eta Cinquecentoaren arteko zubia den maisu handitzat jotzen da, hala irudikatzen dituen gaiengatik nola estiloarengatik. Florentzian lan egin zuen. Marrazkilari bikaina izan zen, eta estilo findua landu zuen, sentikortasun dotorez betea. Haren obra Masaccio-ren eta beraren jarraitzaileen naturaltasun zientifikoaren aurrez aurre dago, eta pintura gotikoaren zenbait elementu berreskuratzen ditu: sentimendu ezia, dekorazio-oparotasuna eta marrazkiaren lerro zehatza. Haren formazio humanistikoa alegorietan ageri da —gai mitologiko edo klasikoen irudikapen sinbolikoetan—, hala nola *Udaberria*, *Venusen jaiotza* edo *Palas eta Zentauroa* obretan. Erretratu eta konposizio erlijioso ugari ere egin zituen.

2.- Quattrocentoko pintura italiarraren ezaugarriak. XV. mendeko pintore italiarrek, *eragin gotikoko lehen fase baten* ondoren non Fra Angelicoren obra nagusitzen baita, ikusizko adierazpenerako sistema berri bat garatu zuten: *perspektiba*. Masaccio da bigarren korrante horren buru.

Gaiak askotarikoak dira. Gai erlijiosoak landu zituzten, batez ere elizetarako eta kaperetarako; gai mitologikoak eta historikoak, non gertaera heroikoak baitira nagusi. Giza irudiak, biluzia nahiz jantzia, atsedenean zein mugimenduan, garrantzi handia zuen artista haientzat. Teknikei dagokienez, neurri handiko freskoez gainera, ohol gaineko tenplea eta olio ere erabiltzen ziren. Elementu nagusiak marrazkia eta argia dira; biak konbinaturik, sakontasuna irudikatzea lortzen dute.



Botticelliz gainera, hauek dira Quattrocento italiarreko autore nagusiak:

- *Fra Angelico* (1400 c.-1455): haren obran tradizio gotikoko elementuak —hala nola urre-koloreko hondoak edo irudien estilizazioa— eta adierazpide errenazentistako elementuak biltzen dira, osagai espiritual handiko margolanetan. Haren lanen artean, *Deikundea* nabarmentzen da.

- *Masaccio* (1401-1428): estilo errenazentista berria adierazten du; espazio- nahiz giro-sentsazioa islatzea lortu zuen bere lanean. Maisutasunez baliatu zuen perspektiba, eta figura irmo eta erabatekoak marraztu zituen, lanari efektu indartsuak ematen dizkion argi batez beteak. Haren lan nabarmenenetakoak dira Florentziako Carmineko Andre Mariaren elizako Brancacci kaperarako margotutako freskoak, Done Petriren bizitzako pasarteak irudikatzen dituztenak.

- *Piero della Francesca* (1416-1492): haren lan nagusia Arezzoko San Frantziskoko freskoak dira. Haren lanaren ezaugarriak dira ikuspuntu zientifikoari esker lortutako handitasun monumentala eta argia adierazpen-elementu gisa erabiltzea.

2. atala

HAUTATU ETA GARATU PROPOSATZEN DIREN BI GAI HAUETAKO BAT: (5 puntu)

A.- “ARKITEKTURA GOTIKOA”.

- Arkitektura gotikoaren ezaugarri orokorrak.
- Espainiako eta Euskal Herriko eraikin gotiko nagusiak.

Erantzuna

- **Arkitektura gotikoaren ezaugarri orokorrak.**

a) Testuinguru historikoa

Gotiko hitza XVI. mendean sortu zen Erdi Aroko arte barbaroa gutxiesteko. Errenazimentuan eta ondorengo mendeetan nabarmendu zen gotikoarekiko arbuio hori XIX. mendearen hasieran amaitu zen, Erromantizismoa iristearekin batera. Une hartan Erdi Aroko artearen balioa handitu egin zen, eta arte erromanikoa eta gotikoa argi eta garbi bereizten hasi ziren.

Arkitektura gotikoa Frantzia erdialdean (I’lle-de-France) sortu zen, eta handik hedatu zen Europako gainerako lurraldeetara. Monasterio zistertarrek garrantzi handia izan zuten arte horren garapenean.



Estilo gotiko berria XII. mendearen bukaeran abiatutako aldaketa teknologiko, filosofiko-erlijioso, ekonomiko, politiko eta sozialen ondorioz gauzatu zen, eta, herrialde batzuetan, XVI. mendera arte iraun zuen. Hirien garapenak bizimodu berriak ekarri zituen, eta pentsamoldearen aldaketa azkarra. Talde sozial berriak (burgesia) sortzearekin, eta unibertsitateetan natura zein zientziak ikertzearekin, kulturaren eta artearen sekularizazio-prozesua hasi zen. Aldaketa haien eraginez, arte errealistagoa eta naturalistagoa sortu zen, ezagutza zientifikoaren eta erlijioaren gizatiartzearen ondorioz.

b) Arkitektura zibila eta arkitektura erlijiosa. Katedrala


Arkitektura gotikoa *erlijiosa* da funtsean, eta **katedrala** da gotikoaren adierazpen gorena eraikuntzan, nahiz eta monasterio-*arkitekturak* ere ez zuen garrantzirik galdu garai hartan. Hiriaren erdialdean egin ziren katedralak, eta haien inguruan antolatu zen eguneroko bizimodua. Katedrala hirietako jendetzarentzat pentsatu zen, eta hiri bakoitzeko udalbatzek parte hartu zuten eraikuntzan, erlijioarekiko garrak eta hirien arteko norgehiagokak bultzatuta, beren aberastasuna erakustearren tenpluak eraikiz lehiatzeari ekin baitzioten.

Erljio-arkitekturarekin batera, *arkitektura zibila* ere gero eta gehiago garatuz joan zen, hirien goraldiarekin bat, eta elementu bereizgarri asko hartu zituen eraikin erlijiosoetatik. Nobleziaren eta goi-burgesiaren jauregiekin batera, hiriaren prestigioari lagundu zioten komunitatearentzako eraikinak egin ziren: udaletxeak, gremioen etxeak, lonjak, administrazio zibilerako eraikinak, ospitaleak eta abar.

c) Eraikuntza-elementuak

Arkitektura gotikoaren oinarrizko bi elementuak *arku zorrotza* edo *ojibala* eta *gurutze-gangak* dira.

- **Arku zorrotza** erabiltzeak abantaila tekniko eta estetikoak ditu. Batetik, bi segmentuek batak besteari eusten diote, eta, beraz, seguruagoa da eta, bertikalagoa denez, presio txikiagoa eragiten da zirkuluerdikoan baino. Bestalde, liraindu egiten du eraikina, eta



bila dabilen bertikaltasunera hurbiltzeko aukera ematen dio eraikitzaile gotikoari. Gotikoak elementu apaingarri gisa erabili zuen arku zorrotza gangetan, leihateetan eta habearten banaketan.

Denbora igaro ahala, forma eboluzionatuz joan zen, eta mota berriak sortu ziren, hala nola arku *konopial*, *karpanel* eta *konopiala*.

Apuntado> Zorrotza
Karpanela
Konopiala



- **Gurutze-ganga** diagonalean gurutzatzen diren bi arku zorrotzek (nerbioek) osatzen dute. Arku horiek gangaren pisua jasan, eta lau puntutara banatzen dute karga. Bi elementuk osatzen dute ganga:

- *Eskeletoa*, diagonalean gurutzatzen diren arkuek (nerbioak) eta *formeretek* (horma-nerbioak) eta *zeharkako arku* edo *parpainarriek* osatua.

- Horma atalek ixten dute ganga, eskeletoan bermaturik.

Arco apuntado > Arku zorrotza

Pináculo > Pinakulua

Contrafuerte > Ostikoa (kontrahorma)

Bóveda de crucería > Gurutze-ganga


Nervio > Nerbioa

Ventanales > Leihateak

Triforio > Triforioa

Arcadas > Arkuteria

Arbotantes > Ostiko-arkuak



Lau zatikoa izan zen gurutze-ganga xumeena, lau horma atalekoa, baina nerbioak gehitu zitzaizkion estiloa garatu ahala. Horrela, *sei zatikoa*, *bitarteko nerbiotuna* (*tierceronduna*) eta *izar-ganga* sortu ziren, besteak beste.

- **Beste elementu batzuk.** Gangetako nerbioen bultzada lau angeluko edo gurutze-formako **zutabeek** jasaten dute, eta haien *baketo* deritzen zutabe meheak ezartzen zaizkie. Gainera, gangaren bultzaden zati bat kanpoaldeko **ostikoetara** bideratzen da alboka, **ostiko-arku** izeneko arku batzuen bidez —haien ere, kanpokoak—, eta horrek katedralaren habearteak garaiagoak egiten laguntzen du, bai eta teilatuko euri-ura bideratzen ere. Ostiko-arkuen bultzadak ostikoa mugitzea eragozteko **pinakuluak** jartzen zaizkio goialdean; helburu teknikoa ostikoa lurrera finkatzea da, baina garrantzi handiko elementu apaingarria ere bada.

Nerbio, zutabe, ostiko eta ostiko-arkuekin “harrizko eskeletoa” egiten da; hark ematen

dio egonkortasuna eraikinari. Hormak euste-funtzioa galdu zuen, eta itxitura huts bilakatu zen; bertan beirate apaingarri handiak ireki zituzten, eta argiz bete barrualdeak. Horrekin, arkitektura gotikoak zituen bi helburuak lortu zituzten: bertikaltasuna eta argitasuna.

Katedral gotikoak fin-fin landutako harlanduekin egiten ziren. Basilika-oinplanoa da ohikoena, tamaina handikoa. Hiru edo bost habearteko oinplanoa da, batzuetan *gurutze latindarraren* formakoa, eta gurutzadura bat (transeptua) du,



zenbaitetan burualdetik urrundu eta elizaren erdian kokatua. Burualdea poligonal da; han daude presbiterioa, deanbulatorioa (girola) eta kanpo-kaperak.

Altxaerari dagokionez, erdiko habeartea alboetakoak baino garaiagoa da, argitasuna bilatzeko.

Eliza gotikoak fatxada bat baino gehiago izaten ditu; nagusiak dorre bana izan ohi du alboetan, gorputz oktagonalekin amaituak, edo bestela gezi zorrotzekin koroatuak. Ateak atari sakonak izan ohi dira, Itun Zaharreko nahiz Berriko pertsonaiekin apainduak. Nabarmentzekoak dira, halaber, *arrosa-leiho* edo bao zirkular beiratedunak.

- Espainiako eta Euskal Herriko eraikin gotiko nagusiak.

Oro har, Espainiako katedralak Europakoen antzeko eboluzioa izan zuten.

XII. mendearen erdialdeaz geroztik, zistertarren funtzionaltasun formala sartu zen, eta kristau-erresuma guztietara hedatu zen monasterioak sortzearekin eta katedralak eraikitzearekin batera. Nabarmentzekoak dira **Huelgasko monasterioa** Burgosen, **Pobletekoa** Tarragonan, **Fitero** eta **Olivakoa** Nafarroan, bai eta oraindik ere eragin erromaniko handia duten **Avilako**, **Sigüenzako** eta **Tarragonako** katedralak ere.

XIII. mendean gotiko klasiko frantsesaren ezaugarriak jarri ziren indarrean, betebetan. Gaztelako katedral gotiko handiak eredu frantsesei jarraiki eraiki ziren, eta, gero, ereduak Gaztela osora hedatu ziren. Hiru dira monumentu nagusiak: Burgosko, Toledoko eta Leongo katedralak.

Burgosko katedralaren lehenengo arkitektoa ez da ezaguna, baina berehala hartu zuen haren lekua Henrike Maisuak. Hark eginak dira Leongo katedralaren zirriborroak ere. Burgosko oinplanoak hiru habearte, gurutzadura eta girola dauzka, kaperarik gabe.

Toledoko katedralak bost habearte dauzka, garaiera mailakatukoak eta girola bikoitzarekin; gotikoaren interpretazio gaztelauaren eredu da.

Leongo katedrala guztietan "frantsesena" da. Henrike Maisuak zuzenean kopiatu zuen Reims-eko katedrala Leongo katedralerako, nahiz eta murriztu egin zuen eskalan. Penintsulako beirate multzo ikusgarriena dauka.

XIV. mendean, eraikuntza-jarduera Katalunian, Balearretan eta Valentzian nagusitu zen, merkataritzaren gorakadaren ondorioz. Frantzia hegoaldearen eta Italiaren eragina nabari da joeran: areto-oinplanoa, estalki laua, horizontaltasuna eta leihate txikiak. Nabarmentzekoak dira Bartzelonako Itsasoko Andre Maria eta Bartzelonako, Gironako eta Mallorcako Palmako katedralak.

Garrantzi handia du, halaber, gotiko zibilak. Adibiderik onenak Bartzelonako, Valentziako eta Mallorcako Palmako lonjak dira.

XV. mendea Espainiako arkitekturaren unerik emankorrenetakoa izan zen. **Sevillako katedralarekin** hasi zen, eta garrantzi handiko gertakari bat izan zen



lehen herenaren amaieran: **estilo flamigeroaren** sorrera. Estilo horrek tokian tokiko formekin bat eginda —bereziki, mudejarrekin—, estilo hispano-flandriarra sortu zen mendearen bigarren erdian. Estilo **isabelinoa** edo Errege-erregina Katolikoena ere esaten zaio, errege-erregina haien agintaldiarekin batera agertu zelako. Bi gune nagusi sortu ziren: Toledo (**San Juan de los Reyes monasterioa**) eta Burgos (**Burgosko katedralaren orratzak eta zinborioa**).

XVI. mendean, Salamancako eta Segoviako katedralak eraiki ziren ezaugarri errenazentistekin.

Arkitektura gotikoa Euskal Herrian

Arkitektura gotikoaren lehen fasea bat dator “protogotikoa” deritzonarekin, **XII. mendearen** erdiaz geroztik. Erromanikoaren eta gotikoaren arteko trantsizio-estilotzat jotzen da. Arku zorrotzak eta gurutze-gangak erabiltzeak aurrerapena ekarri zuen; haiek, geroago, ezinbestekoak izan ziren benetako gotikoaren eraikuntzan. Nabarmentzekoak dira **Fiteroko, Olivako eta Irantzuko monasterio zistertarrak eta Tuterako katedrala**, guztiak Nafarroan.

XIII. mendetik XV. mendera bitartean, Nafarroako Erresumak harreman estua izan zuen Frantziarekin; Nafarroako errege-erregina gehienak kultura eta leinu frantsesekoak ziren. Horregatik, gotiko frantsesak eragin handia izan zuen Nafarroako arkitektura gotikoan.

Orreagako kolegiatako eliza, XIII. mendean sagaratua, estilo gotiko frantses oso garbian eraiki zen, eta benetan gotikoa den lehenengoetako eraikina izan zen penintsula osoan. Parisko Notre Dame hartu bide zen eredu. **Oliteko Santa Maria la Real**, Iruñeko **San Saturnino** eta Artaxoako **San Zernin** XIII. mendean hasitako eraikin gotikoen adibide garrantzitsuak dira. Ez ditzagun ahantz XIV. mendean obra gotikoarekin osatu ziren tenplu erromanikoetako batzuk, hala nola **Leireko habearteak** eta **Uxueko Andre Maria**.

Baina Nafarroako gotikoaren adibiderik onena **Iruñeko katedrala** da. Lehengo katedral erromanikoa erori zelako eraiki zuten; XIV. mendearen bukaera aldera hasi eta XVI.aren hasieran bukatu zuten. Estilo-batasun handia dauka haren egiturak. Alboetan kaperaz hornitutako hiru habearte dauzka, gurutzadura nabarmena oinplanoan eta altxaeran, presbiterio poligonala eta girola berezi bat, zati pentagonal eta hexagonalez osatua. Klaustro zoragarria dauka, onenetakoa Europako gotikoan.

Gasteizko Andre Mariaren katedrala, “Katedral zaharra” esaten zaiona, Arabako eraikin gotiko ederrena da, zalantzarik gabe. XIII. mendearen bukaeran hasi ziren eraikitzen, eta XIV. mende osoan jarraitu zuten, hiria haziz eta garatuz zihoan neurrian. Katedralaren elementu bereizgarrietakoa triforioa da. Nabarmentzekoak dira barruko argitasun handia —eraikinak, kanpotik ikusita, bloke itxia badirudi ere—, eta arkuteria garai zorrotzen eta triforioaren nahiz arrosa-leihoen arteko konbinazio jakintsua.



Gasteizko beste eliza gotikoak **Done Petri**, **Done Mikel** eta **San Bizente** dira. Arabako probintziari dagokionez, aipatzekoak dira, besteak beste, **San Joan Bataiatzailearen** parrokia eta **Santa Maria de los Reyes** eliza Guardian. Bi tenpluak erromanikoan hasi eta gotikoan bukatu ziren. Guardiakoari XIV. mendearen bukaera eman zitzaion portada zoragarri batekin.

Bizkaian eta Gipuzkoan kontserbatzen den gotiko ia guztia XIV. mendearen amaierakoa edo hurrengo mendekoa da. XVI. mende bete-betean ere, Euskal Herriko maisu batzuek formula gotikoei eusten zieten.

Bizkaian, nabarmentzekoak dira, batez ere, **Santiagoko katedrala** eta **San Anton** eliza eta Lekeitioko **Andre Maria**; azken hori Bizkaiko eliza gotiko tipikoenetarikoa da. Estilo gotikokoak dira, orobat, baina geroagoko elementu artistikoak gehitu zitzaizkienak, *Balmaseda*, *Portugaleta*, *Gueñes* edo *Gernikako* parrokiak.

Gipuzkoan, kontserbatu diren lehen garai hartako eraikin gotiko nabarmenenak **Getariako San Salvatore**, **Debako Andre Maria**, **Donostiako San Bizente** eta **Hondarribiko Andre Maria** elizak dira.

XVI. mendean, “*euskal gotiko*” izena eman zaion eliza-tipologia bat agertu zen. Areto-oinplano eta -altxaera dituzten elizak dira —hau da, garaiera-alde txikia dute habearte batetik bestera—, eta gotikoko elementuak Errenazimentukoekin konbinatzen dituzte.

Ipar Euskal Herriko eraikin gotikoetatik nabarmenena **Baionako katedrala** da, zalantzarik gabe. XIII. mendean hasi zuten eta fabrika nagusia XIV. mendekoa da.

B.- “PINTURA IMPRESIONISTA”

- Impresionismoaren aurrekari historikoak.
- Pintura impresionistaren ezaugarri nagusiak.
- Ordezkarriak eta obrarik adierazgarrienak.

Erantzuna

- Impresionismoaren aurrekari piktorikoak

Impresionismo terminoaren jatorria lotu ohi da margolari “abangoardista” batzuek Parisko *Boulevard des Capulinesko* etxebizitza batean 1874an antolatutako erakusketa batekin. Besteak beste, Monet, Sisley, Cézanne, Renoir, Pissarro... ziren antolatzaile. Erakusketako margolanetako bat Claude Monetena zen, eta izen hau zuen: *Impression, soleil levant*. “Impresio” hartatik eratorri zuen Louis Leroy arte-kritikariak erdeinuz erabiltzen zuen *impresionismo* izena, Monet



barregarri uzteko. Denborarekin, argiaren eta paisaiaren giroa jaso nahi zuten artisten mugimendua izendatzeko erabili zen.

Pintura inpresionista berritzailea izan arren, jada Errenazimentuan aipa daitezke haren urrutiko aurrekari tekniko batzuk:

- Errenazimentuko margolari veneziarrek, hala nola Giorgionek eta Tizianok, koloreari ematen zioten lehentasuna formaren gainetik.
- Argia eta argiaren isla orban zehaztugabeen bidez jasotzea, Velázquezek egin zuen moduan.
- Rubensek koloreari eta argiari emandako lehentasuna.
- Ñabardura ugariko kolore-orbanak besterik ez diren pintzelkadak, Goyaren margolanetan.

Denboran inpresionismotik hurbilen dauden aurrekariak, besteak beste, hauek dira:

- Constable eta Turner paisaia-margolari ingelesak: une argitsuak, irudien barreiatzea eta naturako bizipen pertsonalak jasotzen dituzte.
- Delacroix; haren lanetan, kolorea irudiari nagusitzen zaio beti.
- Barbizongo eskolako margolariak, kanpoan lan egiten baitzuten.
- Estampa japoniarrak. Parisko artisten arreta piztu zuten, ingerada indartsuak, konposizio zehiarrak, forma eskematikoak eta kolorearen sintesia direla-eta. Gaiek ere erakarri egin zituzten, eguneroko bizimodua islatzen baitute.

Tradizio horretaz gainera, badira bi aurkikuntza artista horien pentsaera aldarazi zutenak. Batetik, argazkiaren asmakuntza dago: paisaia plano sorta bilakatzen da, eta artistak efektu optikoak eta errealtatearen laukiratze berritzaileak aurkitzen ditu errealtatea instant batean harrapatzeko. Bestalde, 1864an Chevreulen koloreen teoria argitaratu zen, eta eragin handia izan zuen inpresionisten lanetan.

- Pintura inpresionistaren ezaugarri nagusiak

Inpresionistek ez zuten talde homogeenorik osatu. Dena den, ikusten da badituztela hainbat ezaugarri komun:

Argia eta kolorea: Garrantzi berezia hartu zuen argiak, zeren, haien ustez, objektuetan jotzen duen argiak behatzailearen erretinan sortzen duen sentipen labur eta bat-batekoa erreproduzitzearen emaitza baita pintura. Argiak eragiten dituen efektu aldakorak dira obraren funts nagusia. Hori dela eta, artista batzuek gai bera margotzen dute eguneko zenbait unetan. Alde batera utzi zituzten



bolumena, marrazkia eta argilunak, eta formak kolore oinarrizko eta osagarriak erabiliz sortzen zituzten.

Inpresionistek minimora murriztu zuten beltza, edo ez zuten erabili ere, naturan ez baitago beltzik. Tonu argi eta garbien alde egin zuten, eta zurien, urdinen, arrosen, gorrien... gama argitsuak erabili zituzten.

Teknikak: Argi desberdinak eguneko orduen arabera jasotzeko, impresionistek, batzuetan, teknika oretsu eta trinkoa erabili zuten. Tonu garbiko pintzelkadak gainjarriz lortzen da, eta urrunetik begiratzekoak dira.

Beste batzuetan, olioak diluitu egiten zuten akuarelaren efektua lortzeraino. Pintzelkadak indartsuak, distiratsuak eta laburrak ziren, argia une jakin batean jasotzeko bat-batekotasunaren beharraren ondorioz.

Kanpoan margotzeko zaletasuna: Argiari emandako garrantziak eta balioak artistak kanpoan margotzeko zaletasuna ekarri zuen, hori baita natura eta paisaiak eguneko orduaren arabera argi-xehetasunekin jasotzeko modu bakarra.

Gai berri ezohikoagoak: Impresionismoarentzat ez dago gai kaskarrik, baizik eta ondo edo gaizki ebatzitako margolanak. Natura kopiatzen zuten, eta ibai-paisaiak, hiri-paisaiak, gauekoak, herrietako jaiak dituztenak, pertsonaia bohemiak eta baztertuak, argi artifizialarekin landutako barnealdeak... pintatzen zituzten. Pintore bakoitzak bere gaiak baditu ere, badirudi hutsalarekiko joera orokorra zutela, pintura errealista burgesari aurre egiteko-edo.

Espazioaren balorazio berria: Laukiratzeak eta konposizioak aurretik zegoen akademizismoa apurtu zuten, eta ausartago bilakatu ziren. Irudiak ez ziren beti konposizioaren erdian jartzen eta, batzuetan, koadroaren ertzean moztu ere egiten zituzten. Perspektiba geometrikotik ihes egiten zuten, oro har.

Harreman berria artistaren eta ikuslearen artean: Ikuslea jarrera pasiboa izatetik aktiboa izatera pasatu zen, artistaren asmo teknikoen kide izango baitzen. Margolanek bukatugabeak dirudite, *argizko inpresioa* baitira; horregatik, mentalki berregiten saiatu behar du ikusleak. Pintura gustu ofizialetik eta publiko orokorretik urundu zen.

- Ordezkeri eta lan adierazgarrienak

Eduard Manet (1832-1883): Hari egokitu zitzaion tradizioa eten zuen lehena izatea. Lehen etapa akademizista baten ondoren, zalaparta eragin zuen bi obrarekin: *Gosaria belarretan* (1863) eta *Olinpia* (1865). Manetengan



inpresionismoaren lehen ezaugarriak ikusten dira: kolorea garrantzitsuagoa izatea marrazkia baino, eta, batez ere, gai-aldaketa nabarmena.

Claude Monet (1840-1926): Beharbada, margolaririk inpresionistena. Paisaia-margolari handia izan zen, eta serieak pintatu zituen frogatzeko zer eragin zuen argiak gai berean eguneko hainbat ordutan; adibidez, *Rouengo katedrala* eta *San Lazaro geltokia*. Haren *Inpresioa*, *egunsentia* izeneko margolanak eman zion izena mugimendu artistikoari.

Alfred Sisley (1839-1899): Paisaiak besterik ez zuen margotu, argiak naturako koloreetan nola eragiten zuen ikusteko. Haren lanak ukitu malenkoniatsua du. Aipatzekoa da, haren lanen artean, *Louveciennesko bidea*.

Camille Pissarro (1830-1902): Haren gai gustukoena landa-eremuetako herrixketako giroa zen; esaterako, *Teilatu gorriak*.

Auguste Renoir (1841-1919): Haren ekarpen artistiko nagusia inpresionismoaren berrikuntzak giza irudira eramatea izan zen. Aipatzekoak dira, besteak beste, *Bainulariak*, non eguzki-argiak emakume biluzien gorputzetan zuen eragina esperimentatu baitzuen, *Palkoa*, *Moulin de la Galetteko dantzaldia*...

Edgar Degas (1834-1917): Hirietako eszena, pertsona eta ohiturak marraztu zituen. Gehiago arduratu zen argi artifiziala aztertzeaz argi naturala aztertzeaz baino. Oso ezagunak dira berak margotutako dantzarien serieak. Lan aipagarrienetako batzuk: *Dantza-ikastaroa*, *Arabesko baten amaiera* eta *Lisatzaileak*.

Oharrak

Hemen ematen diren erantzunen luze-zabala orientabidea baino ez da. Atal bakoitzean egin beharreko garapenaren tamainak eta sakontasunak erantzunen alderdi guztien osotasunari lotuago egon behar du garapenaren sakontasunari baino.



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

UNIBERTSITATERA SARTZEKO
HAUTAPROBAK 25 URTETIK
GORAKOAK

2010eko MAIATZA

ARTEAREN HISTORIA

PRUEBAS DE ACCESO A LA
UNIVERSIDAD PARA MAYORES
DE 25 AÑOS

MAYO 2010

HISTORIA DEL ARTE

**PROBAKO GALDEREN ETA EZAGUTZA-ADIERAZLEEN ARTEKO
HARREMANA**

GALDERA	EZAGUTZA-ADIERAZLEA
1	2, 3, 4, 5, 6, 7, 8, 10
2	1, 2, 3, 4, 6, 7